

HEMEN GATOZ GAUR ZUREGANA, JAUNA

1

Hemen gatoz gu, Jauna,
gaur zure ondora,
Alkarren lagun gera
hainbeste denpora.
Zure taldea gara
gu Bizian Gora,
ez al gagoz Zu ta gu
alkarraz gustora?

2

Zure lagun gara ta
alkarrekin lagun,
lagunarte hoberik
ba ete da inun?
Jentea galdez dabil
zer jazo ete jakun,
Bizian Goran gabiltz
zer grazi daukagun!

3

Zugan sinisten dogu
ta maite zaitugu,
gure lagunartean
zaitut ezagutu,
Benetan ona zara
hain maite gaituzu!
gero ta lagunago
gara Zu eta gu.

4

Batzuk gazte sasoiko
ta beste batzuk baldar,
baina behar gaituzu
berdin gazte ta zahar.
Jubilatuak gara
badogu su ta gar,
hemen gaukazuz, Jauna,
Zuk egin deadar. Aita Martzel